


A.T.V.  
4691

1/1



M - 16744  
R. - 6339  
A.T.V  
4691

# JESUSEN BIOTZ

GUZTIZ DONTSUA

BEDERATSI LAGUNEC

ONRRADUA.

---

JAUNGOICOZCO BIOTZ



ONEN ONRRAN COROECHOA.

~~~~~  
BEAR DAN BAI EMONAZ.  
~~~~~

DURANGON.

J. Elizalden moldesteguian,

1883—GARREN URTEAN.

*Irugarri eguisube au mundu guttitan.*

(Isai, c. 42, v. 5.)

ARGUIRATZALLEAC IRACURLIARI

Orain dempora guichi dala etorri zan nire escuetara, Erroman 1867 garren urtean molderaturico liburuchu oneratzu bat, icen onegaz, JESUSEN BIOTZ GUZTIZ DONTSUA BENDERATSI LAGUNEC ONRRADUA. Zan liburuchu au Españan. *Jesusen biotz dontsuaren onrran equiquisun oneratsija-derichona*, Madrillen eta beste lecu batsuetan, bein ta barriro molderatua, eta aimbat urtean Biotz Jaungoicozco onen onerazpen edo debocinoa iziotuten dagoana; baña neure ustean Erroman molderatuac dauco obari mesedegarri bat, Españan arguitara emon zanen ganera.

Obari au da puzca bat gueituta egotia eta berbaz imintea, Bearguintza edo Oficijo bacochoac egunero zuzendu biar dituzan arimaco gurari, arnasa eta beste eguicuntsa

biotzeenac, icentanagaz berbaz berba, beste liburuchuac norberen auqueran ichiten dituzanac: au, duda bagaric, ondo etorrico jaque, euren ez cer asman, ez cer esan ez daquijeen arima ascori. Eurai bada esquintzen deutzet lan chiqui au eta beragaz batera Biotz Jaungoicozcoaren onrraco coroechoa, cein aurquituco dan 46 garren orrijan eta dagoan parcamen edo indulgencia ugariacaz aberastuta.

### **GORDEGARRIAC.**

---

Jesusen Biotz dontsuaren ondraco eguicuntsa chito erres eta mese de garri au lenengo iminia izan zan Biotz Jaungoicozco onen alaba edo Visitacinoco monjentzat, ceintzuei euren ereguitzalle edo Fundatzalle santuac, imini eutsen alaco icen ederrau. Dago banacanduta bederatsi Bearguintza edo Oficio berarizcotan, ceintzuetatic gueienac dagozan aterata, gueure Jaunac bere

biotzeenac, icentanagaz berbaz berba, beste liburuchuac norberen auqueran ichiten dituzanac: au, duda bagaric, ondo etorrico jaque, euren ez cer asman, ez cer esan ez daquijeen arima ascori. Eurai bada esquintzen deutzet lan chiqui au eta beragaz batera Biotz Jaungoicozcoaren onrraco coroechoa, cein aurquituco dan 46 garren orrijan eta dagoan parcamen edo indulgencia ugariacaz aberastuta.

### **GORDEGARRIAC.**

---

Jesusen Biotz dontsuaren ondraco eguicuntsa chito erres eta mese de garri au lenengo iminia izan zan Biotz Jaungoicozco onen alaba edo Visitacinoco monjentzat, ceintzuei euren ereguitzalle edo Fundatzalle santuac, imini eutsen alaco icen ederrau. Dago banacanduta bederatsi Bearguintza edo Oficio berarizcotan, ceintzuetatic gueienac dagozan aterata, gueure Jaunac bere

serbitzari Zorioneco Margarita Maria Alacoque, Visitacinoco ordearretaco monjiari emon eutsazan ceruco arguitasunetatic eta debocinonec zarratuten dau beragan Jesusen Biotzaren gloriya gueñagoraco izan al leitequean guztia. Bere bidez, aozco escarijacaz eta campolico eguiqueracaz iñor necatu bagaric, emon leiquiño, ascoren artian, Jaungoicozco Biotz oneri barrutico adoraciño jarraitu bat, gach izango litzaquiona bacar bateri, Jaungoicua-  
ren gauzetaraco bero ta erria izanda bere. Onetaraco bada ondo izango da icentetea emen doazan gordegarriac.

1.<sup>a</sup> Illaren lenengoco barijacua-  
ren aurreco egüenean, Biotz dontzuari esquiniric dagozanen artian, ateraco dirá suertez bederatzi Bearguintza (bada onetanche dago debociño au) eta guero bacochoac eguingo dau aleguiña betetaco albait onduen bere Bearguintzia urrengo illerartian.



2.<sup>a</sup> Lenengo barijecnac izan bera dabe noz berotasun gueijagoc lagundo denteen guentre eguiquerai; eta onetaraco (Salbagnilleac iracatzi eulzan laguez Margarita Zorionecuari;) (1) comulgauco dira, euren arimen zucentzalla edo confesorearen escubideaz, eta barriztauco dabe emoiquisun edo consagracinoco eguitaldia liburuchu onen 53 orrijan aurquituco dana.

3.<sup>a</sup> Jesusen biotz dontzuaren oneratzu edo debotuac, santutu biar badituez bere berarizeo moduz urte barruco jairic andijeenac, aratos-teelaco iru egunac, gabontzar da urtebarri eta urteco barijecu guztiac, alan bere euren egunic andijena izango da gorpuztiren zortziurrunetic urren datorren barijecua, cein dan Jesucristoc berac icentaua eta Eleissiac iminija ospatu edo celebretaco Biotz Dontzuaren jaia.

4.<sup>a</sup> Obato bete daiquean baco-chac bere Bearguintzia, ardura ar-

---

(1) Biotza Jann Languetec: escribedua 4.<sup>em</sup> lib.

taco dau batuteco Jesusen Biotz Dontzuari eguiten deutzasan ondra eta laguntzac, bere Bearguintzan icentetan jacon aingueru santuen corubagas eta eguin euracaz arimaco alcartasun bat, Margarita Zorionecuac eguiten eban leguez, eurac bete daguiyezan gure utzeguiteac, eta gorde daiien gueure lecua lo gagozan orduetan eta beste edocein modutara arazoturic egon gueintezanetan, onelan Biotz Jaungoicozcoac izan daiian betico onrra eta onesana.

5.<sup>a</sup> Jesusen Biotz Dontzuaren urrengo barriz izanic maitegarriena, maitatzallecna eta bere antze-coagoena Marijaren biotz guztiz garbisa, Ama gozo eta beneragarri onerri izango deutse onelan esquiniac onetsi ta debocino biotzeco samur bat, onrraduten dabeela prestutasun andijaz, batez bere illaren lenengo sapatuetan eta ceruco erre-guiña onen jai andijetan, alcartuaz biotz Jaungoicoscoari zuzenduten

deutzezan gurariac, Virgîna chito garbi onenacaz, bada au da bitarteco guztiz eraguillea, gorde ta gueitufeco Jesusen Biotz Dontzuagana-co debociñoa.

6.<sup>a</sup> Biotz Jaungoicosco oneri guztiiac emon bear deutsen atzenguingarriric andienac, eta eguiquisun santu onetatic lenengo atera bear dan frutua da, norberen bicimodu edo estaduco erreguelac ta eguin biarrac oso bete ta gordetea, euquiric beti gomutan, Jesucristoc Margarita Zorionecoari eguinico berbac, ceintzue erliginoan bici cireanai zucenduac izan arren jagocoez munduan bici direanai bere. Ara emen: *Ecîn cinaique eguin gausa niretzat atzeguingarriagoric, leiial ta umillasun sendo bategaz ceure erreguelen bidean ibilltea baño; utzeguiteric chiquienac eurretan dirá andiiac nire beguïen aurrean* (au da direala bestienac baño andijagoac) eta erligiñoan bici danac salduten dau bere burua eta urrinduten da nigandic

*uste dabenean ni billalutea beste bi-  
detic bere erreguelac oso gordetatic  
ezpada. (1)*

7.<sup>a</sup> Jesusen Biotz Dontzuaren de-  
bocinoau eguiten dabeenen artean  
dagoan caridadeco alcartasuna izan  
daiten gueruago eta estuago, go-  
gorrago eta zintzuagoa, escatuco  
dan bacochoac egunero bere lagunac  
gaitic eta al balei esquinico ditu  
euren oneraco comunino, errosariio  
edo coroechoac, erregutuaz Biotz  
Santuari, gueitu daijela guztietan  
beraganaco amodijo gozoa eta inor  
bere ez daitela epeldu ez aldendu  
alcartasun ain zorionecotic. Eta  
onetaraco ondo izango da alcar biz-  
cortu eta alimetea (baña beti mo-  
duz ta ondo beguiratuta) eta alan  
zabaldu al dan guztia Biotz Dont-  
suaren erreñua. Artuten dancan la-  
gunen baten illbarriia, bacochoac  
errezauco ditu bost errosariio eta  
esquinico ditu bost comuniño bere  
arimiaren ascaldiraco eta sacerdo-

(1) 3.<sup>on</sup> lib. azquenean.

teac dirianac esango deutzes bost Mesa.

8.<sup>a</sup> Nor baitec izango baleu al-  
dendu bearra bere lagunac gandie,  
orregaitic jarraitu leiio Biotz Jaun-  
goicozcoaren adoraguillaren batzar-  
recoa izateari; eta orduan amaituric  
aldendu zaneco illa eta jausi jacon  
Bearguintzia, artuco dau aren ur-  
rengo datorrena suertean bagaric  
eta onan iraungo dau bederatsiiac  
azquendu artean eta guero asi bar-  
riro lenengotic. Onetara eraguin  
bearco deutsa Biotz santuaren amo-  
dijoac eta beste bere lagunac dau-  
quezan onera arimacoetan parte eu-  
quiteco gurariac; pensamentu erazo-  
garri onec baliio leiquiio beste bat-  
zuen artian bere, al daiian bestean  
zabaldu ta iragarteco debocino au.

9.<sup>a</sup> Escrupulu edo arimaco bil-  
dur bidebaguiac quenduteco emen  
esaten da, Bearguintza ta eguitaldi  
esan direanac, izan daitezala edo-  
cein jazoera nai dempora, aituten  
direala eguin-bear pecatuzco chi-

quien bagaric: bacarric Jesusen Biotz Dontsuaren amodiioa eta alcartasun gozo ta eztua dira oneen azquena ta gueiia.

10.<sup>a</sup> Azquenez, izango da pozaldi andicoa guztientzat contetea emen Margarita Zorionecoaren bicitzan 4.<sup>en</sup> lib.<sup>o</sup> iracurten dan jazoerea. «Bein batean urreratuten zala Comuniño Santura, eracutsi eutsan Jaunac bere Biotz guztiz maitetsua laba gori baten irudiian: baita icusi cituzan beste biotz bi aleguinca ebillzanac beragana irantsi ta beraz bat eguiteco; eta orduan esan eutsazan Jaunac bere barruan berba oneec.» *Onanche batuten ditu neure amodiioac betico, biotz bi oneec;* adierazoten eutsala cireala eurac berea eta Aita Colombiaren, Jesusen Lagunteguico bere confesorearena. Guciago ezan eutsan, gura ebala izan ceitezan bere Biotz jaungoicozcoaganaco, neba arreba, gurasoen ondasun edo etorquisunac sati bardinetan partiduten cituezanac le-

guez, cergaitic alanche bardin artuco cituezan, beragaz alcarturic egotean dagozan graciaren ondasunteguiac. ¿Eta cergaitic ecingo dabe icharon beste aimbeste Jesusen Biotz Dontsuaren serbitzari leiialac, onerazpen ain ederra eguiteco bat eguinic dagozanac, alcartasun santu onetatic? Jesus guztiz erruquitsuac bada ez deutse guichiago aguinduten, ciur esan eban leguez beste aldi baten emacume Zorionecoac (1) berba ezaugarri oneecaz: Erliginoan bici direanac, diño, jadetsico dabez ainbat gracia ce, conventuric nazaituenac ez dau bearco beste bitartecoric irabaci daiian lenengo berotasun eta erreguela gorde bearra, eta gorde zaleac jadetsico dabe ontasun goratua bitarteco onegaz balijsauten badira. Neure Salvaguilla Jaunac aituten emon deust arimen salvacinoan daragoioenac, euquico dabela biotzie gogortuenac irabazteco jaquituriia eta euren aleguinac

(1) 6.<sup>en</sup> lib.

izango dabeela mirarizeco frutua, badauque eurac Biotz Jaungoicozco onen debocino samur bal.

Biotz guztiz maitetsu onec eguin daiiela gueure opaquisunac, zorio-neco eguiquerac izan daiezan.



Margarita Zorionecoac, Agorrillaren 10.<sup>a</sup> et 1689 garren urtean, escribiduten eutsan Jesusen Lagunteguico erligioso bateri, devociño au orduan artu ebenen zorientasunaren gañean eta diño onan.

¡O cé mecede ereguia eguin deutsen Jaungoicoac arima onei, emonaz probetan ain laster, devociño gozotasunes betetaco ain egoquijs. Nic icusten ditut Biotz Jaungoicozco onetan, danac auqueratuta bera maite izan daiien betico iraunetan... baña Jesusen lagunteguico Aita Veneragarrijai gorde deutse adierazotea ondasuntegui aberats onen baliio ta ugaritasuna, nundic, ceinbat eta gueñago ateraten dan, gueñago dagoan cer atera. Euren escuan dauque bada eria aberaztuteco arimaco ondasun guztiric, eta bitarte-co guztiz egoquijs betetaco oso euren eguin bearrac, euren caridade-co jarduntzan opa daben moduan. Biotz jaungoicozco onec isurico dau ain ugari euren berbetan caridadea-

ren irantsia ce, euren indarrez ago bico ezpatia balira leguez igaroco ditue biotzie gogorrenac, eta sentidu erazoco deutse Biotz jaungoicoz-coaren amodijoa, ecarten dituezala bere bitartez peccari dollorrenac penitencia osasuntsura. Azquenez modu onetara erabagui dau Jaunac isuritzea Visitaciñoco Ordean et Jesusen Lagunteguijan bere gracia ta osasunaren ondasunteguico ugari-tasuna, icharoten dabela ordeaz Er-ligiño bi orrecgandic, amodijo onrra ta alabantza jarraituba eta aleguiñ biciaac zabaldu eta sendatuteco biotz guztietan bere erreinua. Alde onetatic Jaunac icharoten ditu gauza andiaac zeuen Lagundi santific; alan andiaac dira beragan daucazan pentsamentuac edo usteac.

**Egun guztiraco erregu ta  
esquintzia.**

Neure Jaungoicoa, Aita Semea ta Espiritu Santua; nic esquiniten deut-sudaz Jesucristoren irabaciaacaz

batean, egun onetaco neure escari,  
 eguiguera ta naibague guztiiac ceu-  
 re onrra ta gloria andiagoraco eta  
 ceure borondate Santua eguitear-  
 ren; neure Ama guztiz Santa Mari-  
 jaren onrran, neure aingueru jagola  
 eta neure Santu gordetzalla guztie-  
 nian; neure pecatuen parcaeiño ta  
 paguraco; peccariien biurrera ta  
 onen irante ona gaitic, arima be-  
 deincatu purgatorijocoen azcaldijan  
 al neiquezan parcamenac irabazte-  
 co eta Aita Santuen intenciñoaz;  
 Jesusen Biotz Dontsuaren adoratza-  
 lla ta seme, neure anaiien arimen  
 on ta aurreraquisuneraco, baita er-  
 regutu bear dodan beste guztien  
 daco: esquerrac emoteco orain ar-  
 tian eguin deustasuzan eta aurre-  
 rantzean eguingo deustasuzan me-  
 sede gustiiac gaitic Neure Jesu  
 Cristo Jaunaren irabaciiac gaitic.  
 Amen.

## LENENGO BEARGUINTZAN EGUITECOA.

**Eraguinguilea.**

Esquintzaco escariia egun guztiraco (emen gojian ezan dana) 15 garren orrijan.

*Biotzeco gurariiac.* ¡Aita Belicoa! Emon eguidazu bear dan arguitasuna guizon guztiiac ezagutu daiien, ceure seme Jaungoico Jesusen Biotz guztiz Santua. ¡Espiritu Santua! icio-tu eguizuz gure biotzac maitetu dai-gun bera sugarrezco amodijoz.

Eta Zuc, Virgiña guztiz Santia, imini eguizu ceure bitartecotasun chit altsua, Biotz Jaungoicozco onegana urreratuten direan guztiiac probau daien euren beguiz bere al-tasuna.

*Egun barruan Biotz Jaungoicozco onegana biurturic esango dau sarri.*

Nic adoretan zaitut neure Jesus Sacramentadua, eta adoretan dot

ceure Biotz nire amodiioan ain sugarrez botea. Ceu zara nire bacarfasun gozoco guelia eta neure amodiioaren azquen maiteena. Gura neunque, neure Jesus, orain sartu zaquidazan neure ariman eta erre naguizun ceure sugar jaungoicozcoan.

¡O Tronuen Ainguerutegui zoriocueua! zeuecgaz bat eguiten nas, onrretaco zuen laguntasunean, neure Jesusen Biotz Dontsua.

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡O neure Jesus Sacramentadua! ceure Biotz guztiz gozoaren irabaciac gaitic, erregututen deutsut, eguin zaitcala erregue biot guztietan, baña berarizco moduz gu ceure adozatzalla erruquigarri oncetan eta eguin daizula gure arimetan ceure amodijozco pensamentuen neurrian.

*Bost Gloria Patri.*

*Bost bider esango da urrengo erregua.*

Emon eguidazu, neure Jesus, ecarri al daidala arimaren bat ceure Biotz guztiz santuaren devociñora, eta au ecin banei, eguizu arren icusi daidazala beti devociño au dauqueen arimac ceure amodiioan gueroago ta icituago.

*Arimaco arnasac.* Neure Salvagui-lla maitegarriaren Biotza, eguizu ceure amodijoan joan nedin icituaz aurrerantza. Neure Jaunaren Amagoza, eguizu indartu dedin nigan bere amodiioa.

*Erregua.* ¡O Jesus guztiz gozoal eguizu arren ezagaturic guizon guztijac ceure Biotz jaungoicozcoaren ondasuntegui ecinesanac eta albora ichiric munduco atseguñac, biurtu daitezala probetan, maite zaituczarentzat ceure Biotzian guertauroic daucazuzan atseguin zoragarriac.

*Dendatu bedi arimaren bat Jesusen Biotz guztiz dontsuaren devocinora ecartera.*

## ERAGUILLIA.

Amorezco catiaz zugana loturic,  
Mundua icustia Jesus nai neuque nic,  
Jariste arren ori ;Oh biotz añ ona!  
Emongo neuque pozic zantaco odola.

Zure glorigaitik eue arimiac  
Naico leuquez orduan artu naibaguiac,  
Zegaitic litzaquion nekia izango  
Eztia berá baño ascóz gozuago.

Tronu-Aingueru danen coruaz batian  
Nai neusquizu gloria al dodan bestian,  
Eraguilla onec gaur zabaldu lurrian.

¡O biotz gu ametan zariana gartul  
Ez dedilla guizonik ija zugaz aztu,  
Amoria amorez artian saritu.

## BIGARREN BEARGUINIZAN EGUTECOA.

## Quitatzallea.

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
gua (*15 garren orrijan*).

*Biotzeco gurariiac.* Parca esque  
naotzu, neure Jauna, Sacramentu

guztiz Santuan ain sarri artu daroazuzan iraiñac gaitic.

*Egun barruan Biotz Dontzuan sarturic esango dau sarri:*

¡O Altasunen ainguerutegui zorionecua! Lagun eguidazue dezeguiten Jesusen Biotz guztiz gozoi eguino iraiñac, Mesa gaizqui esanac gaitic, berarizco moduz esquinita dagocazan arimac epeltasunez ta oztasunez eguiten dituezan comuninoac gaitic, eta lenengo nic eta nire anaiac Biotz jaungoicozcoaren adoratzallac eguiten doguzanac gaitic eta eguin deustaguzan naibague guztiac gaitic.

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡O Jesusen Biotz guztiz erraquit-sua! zu zara adizquidetegua ceñen bitartez Aita Beticoac (\*) agundu

---

(\*) «Escatu eguidazu neure Same Jesus guztiz mailegarrifaren biotzagaitic, hada beragaitic entzungo adentzut eta alcantzauco dozu escututen deustasu guztia.» (*Margarita Zorionecuari bere bicitzan*).



deuscun beti entzungo dituzala gure erreguac; ni bateguiten naz zuzgaz esquiniteco Aita Beticoari nire biotz murrutu ta ecer berez au, damuturic ta umilduric bere itzaltasunaren aurrean, eta opa dodala, guztiz deseguitea eguin jacozan irainac, berariz barriz ain sarri zue Altaraco Sacramentuan iragoten dozuzanac, ta aurrenengo nie bere neure zorigachez eguin dodazanac: gura neunque, Biotz jaungoicozcoa, garbitu neure negarrampuluacaz ta deseguin neure sanetaco odolagaz, ceure amodioari emon deusagun esquercharra. Iransten dot neure damua chiquia bada bere, alaco ortu santuco odolagaz, ceure larritasun eta odolesco icerdi illcor, gucure pecatuen gomutiac atera erazo eutsunagaz. Esquini eguiosu, Jauna, ceure Aita Beticoari ceure Biotz guztiz maitegarriaz batean. Emon eguiosuz azquen baco esquerrac beti eguiten deuscuzan mecedeac gaitic eta bete begui zure amodioac gure esquer char ta go-

mutaric ezen utseguite andiiac. In-  
dazu gracia agueru nadin beti  
ceure anditasun jaungoicozcoaren  
aurrean lotsa ta itzal andiiac, qui-  
tatu daidan moduren baten ceure  
aurrean eguiten azartu nazan erres-  
peturic ezac ta iraiñac eta gaurlic  
aurrerantzian jardun daidala ale-  
guin guztiiac berbaz ta eguiqueraz  
ecarten arima asco ezagutu zaiezan  
ta gozau daiezan ceure Biotzeco  
atseguñac. Oraindizec esquiniten  
naz ta emoten naz guztijau zabaldu-  
teco Biotz guztiz dontsu ta guztiz  
gozo onen gloria. Artuten dot bera  
neure biotzeco gurari ta opaquisun  
guztien azquengarrizat eta orain-  
che betico iminten dot bertan neu-  
re egolecu azquen hacoa, ezagu-  
tuaz, adorauaz eta maitetuaz neure  
barru guztic, neure Jesus guztiz  
maitegarrien Biotza dana leguez,  
neure erreguecna, ta Jaube nausie-  
na, neure arimiaren senarra, artzain  
ta maitatzalea, eguiazco adisquidea,  
Aita maitetsua, bide aurreco ciurra,

iguez lecu sendoa ta betico zoriontasuna. Amen.

Sartuten naz Jesusen Biotz guztiz Santuco zauriian beragandic secula ez aldenduteco. Esquiniten deusat, neure Jauna, ceure Anditasun Jaungoicozcoari Biotz ori berori, dezeguiteco pecatirriac gandic dempora guztiietan artuten dozuzan iraiñac.

*Arimaco arnasac.* Neure Salvaguillearen etc. Neure Jaungoicoaren Ama gozoa etc. (*19 garren orrijan*).

*Erregua.* ¡Neure Jesusen Biotz guztiz maitetsual! ¡Ceimbat irain artzen dozuzan altaraco Sacramentu adoragarrijan! Bertan emoten dozu ceure amorearen ezaugarriric ereguiena eta guizonac, ez dirudi ezpada ontzat daruela euren esquer char gueieguiia. ¡A! Deseguin albanei nic neure odolagaz gaztaqueri ain icaragarriia! Beintzat gura dot, neure Jesus, eguin aleguiñ guztiiac ta imini bitartecoac betetaco utseguite oneec.

Gura deutsudaz emon ceuri neure bicitza guztico egunac eta ceure

Biotz guztiz gozoaren amodiio utsez  
 ichi bera ceure escuetan ta emon  
 azqueneco arnacia. Amen.

### ARTETZALLIA.

---

¡Ze pena! ¡ze damua! dodan biotzian,  
 Pecatarien esker charra icustian,  
 Zugandic mesediac onecc artu arren,  
 Damuz zaituelako sarri garratzuten.

Sacramentu ori da garbi nun dacusgun,  
 Zure maitetasuna arguiro ezagun,  
 Or bertan, baña Jauna, añ guizon zantarrac  
 Orduero deutsucz eguiñ bidebagaac.

¡Oh zeru goyetaco Altsu-aingueruac!  
 Lagundu naguizue isurten malcuac,  
 Arteztzeco ainbeste-char eguiñcuac.

Nire biotz barruco damuzco zauria,  
 Aguertu daiozuen daucat guraria,  
 Jauuari biguntzeco asarre bicia.

### IRUGARREN BEABGUINTZAN EGUITECOA.

---

#### Adoratzallea.

---

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
 gua (15 garren orrijan).  
 Biotzeco gurariiac. ¡O Irubatasun

guztiz Santua! nie adoretan zaitut umiltasunic andienagaz eta Jesusen Biotz guztiz Donsuaz batean bedein-catu eta alabauten zaitut neure arimaco indar guztiacaz. A! Eta ceinbat opa dodan bete al daidan bes-tean neure biotzeco gurari epelacaz, zugaz munduac zabal daucan gomutaric eza.

*Egun barruan sarri esatecoa.* Santua, Santua, Santua, soldauteguien Jaungoico Andia ceure gloriiaz beteric dago lurra. Glorria Aitari, gloriia Semeari, gloriia Espiritu Santuari.

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡O Sacramentuan zagozan neure ontasun guztiia! emon eguidazu niri ta nire anaia Biotz jaungoicozcoaren adoratzalla guztiiai, eta sacerdote ta erligiosu guztiiai arimaco berotasun ta saletasuna guztiioe bete daiguzan ondo ta artez gueure bicimoduco eguin bearrac.

Esango dau iru bider: ¡O Biotz

*jaungoicozco, Jaungoico andiia mai-  
tetu ta adoraulen dozuna, erruquitu  
zaitte gugaz.*

*Esquintzia.* ¡O Aguintasunen ain-  
guerulegui goratua! Ezquini eguio-  
zuez nigaz batean Jesusen Biotz zo-  
rionecoari Erligiño Santuan eguiten  
direan obra on guztiiac eta emon  
eguiozuez bere gloria andiagoraco.

*Arimaco arnasac.* Neure Salva-  
guillearen etc. Neure Jaungoicoaren  
Ama gozoa etc. (19 garren orrijan).

*Erregua.* ¡O neure Jesus, Jaun-  
goicoaren Anditasunaren adoratza-  
lla duiña! Ni neure arima guztia-  
gaz alcartuten naz zuc zeure Biotz  
guztz. Donsuaren barruan ceure  
Aita Jaungoicoari emoten deutzazu-  
zan adoracinoacaz, gura neunque  
euqui neure sinisquera ta amodi-  
ioan alaco zeuc ceure Ama guztiz  
Santiari ta ceure Santuai iracasten  
deutsazuzan biotzeco gurari guzti-  
iac, adoran ta gloriatu zaiquedazan  
zor jatzun leguez helico iraunetan.

*Euqui lotsa ta itzaltazun sacona  
eleissetan.*

## ADORATZALLIA.

---

¡Oh Biotz! oh iturri guztizeo gozua!  
 Baita gure arimen Artzaiñ añ dontsua,  
 Irago zenduzana añ pena andiac,  
 Galdu ezequizuzan betico ardiak.

Alan, eguite arren ardi onen lanac,  
 Ichiric bein munduco zoruen biarrak,  
 Orciñ egarriduna leguez gaur onera,  
 Iturri orretatic nator edatera.

Aguintari-Aingueru direan artian,  
 Adorau nai cinduquet eurakaz nastian  
 Sarturic ceure biotz eta bularrian.

Biotz eta amodioz baturic ni zוגaz,  
 Bat eta Irucocha zarian orregaz,  
 Pozic ez dodalaco lurrian bestegaz.

## LAUGARREN BEARGUINZAN EGUTECOA.

---

### Maitatzallea.

---

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
 gua (*15 garren orrijan*!).

*Biotzeco gurariac.* ¡O ceruco Se-  
 rafin zorionecoac! Jadetsi daidazuez

Jesusen biotz guztiz Donsuaganaco amodiiozco sugar aimbeste erre ta quiscaltzen zaitubezanac eta bete eguizuez zeuen adoracinoacaz nire oztasun guztiz andiia.

**Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡Neure Jesus Sacramentaduaren Biotz adoragarriia! Nie emoten deusudaz neure bicitzaco ordu guztiiac. Ichiten dot neure biotza sagra-rio orretan zarratuta ceugaz Serafi-nen ingurateguiaz batean maitetu ta adorau zaizan orain eta beti. Amen.

*Esango dau iru bider:* Jesusen Biotz guztiz maitegarriia, maite zaitudaz; bai baña amodiio macal ta otzaz larreguiian. ¡A! Eguizu arren ni ta izatea dauquen guztiiac iciotu gaitezala ceure amodiioaren suan orain eta betico.

*Loac artu baño lenago.* Lo nago ni, baña iratzarturic dago nire biotza neure maite laztanaren gomutan.

*Gabez iratzartuten danean.* Maite



zaitut Jesusen biotz guztiz gozoa,  
Serafin eta Maria guztiz Santiaz  
batean.

*Goissean iratzarturico an.* Esquer  
onac eguiten deutsuedaz Serafin zo-  
rionecoac neure Jesusen Biotz ado-  
ragarriari esquinifen deutzazuezan  
adoracinoac gaitic.

*Arimaco arnasac.* Neure Salva-  
guillearen etc. (19 garren orrijan).

*Erregua.* ¡O Jesusen Biotz guz-  
tiz maitatzallea, sutegui jaungoicoz-  
coa, nun icioturic dagoan alaco su-  
gar lurrera ecarten etorri cineana,  
eta ceinetan icioturic icusi gura do-  
zuzan gure biotzac! erre bediz, Jau-  
na, gar guztiz mintz orretan austu  
artean. Aingueru ceruco jauregui-  
tarrac, erregututen deutsuet nie  
neure biotz guztitic, esan daiozuela  
nire bicitziaren Jaunari bere amore  
guztiz gozoan urtuten nagoala.

*Artu bedi ardura guztiz andi bat  
betetaco equin bear chiquiienac.*

## MAITETZALLIA.

---

¡Oh Biotz gozo eta añ maitelarial  
 Damu batek zulatzen deust biotz guztia  
 Nundik botaten dodan ugari negarra  
 Ikusirie guizonac añ epel dirala.

Oneei beti mesode zagoquez eguiten,  
 Escu ugariacaz graciac emoten,  
 Lazo estu bategaz batze arren zugaz,  
 Baña nayago dabe alcartu munduaz.

Maitetzalliac leguez nic beintzat bertatic  
 Zure ofietan anspez biotz biotzetie,  
 Negar nai deusut eguñ dollor orree gaitie.

Indazu arren Jauna, sugar bat bicia,  
 Serañn ainguerueu antzeco goria.  
 Alabau daidan zure esku ugaria.

## DOSTGARREN BEARGUINTZAN EGUTTECOA.

---

### Icaslea.

---

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
 gua (*orrij. 15*).

*Biotzeco gurariac.* Eguizu arren,  
 Jauna, guztiiac, baña lenen sacer-

doteac, ceintzuc direan fededunen maisnac baliian daitezán ceure Biotz jaungoicozcoaren onerabide arguiaz, eta bein bere ez daitezala ur-rindu ceure ceruco icasbideetatic.

*Egun barruan sarri esatecoa.* Jesusen Biotz, amodiio Santuaren icaslecuá, ceugan guelditzen naz, munduco jaquituriá arroac nigan-dic sustraiz ateraric, iciotu daizun nire bularra gurari santuz.

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

*Veni Creator, etc.*

Neure Jaungoicoa, mundura dato-zan guizon guztiiac arguitu ta borondate guztiiac zucenduten dozu-zana, isuri eguizuz ceure jaquituri-aren arguitasun cerucoac, guzurra-ren jarraitzalla guztien buruetara, eta eguizu artu daiezala leialtasunez euren biotzetan ceure Evangelio Santuco egui osasuntsuac.

¡O! eta ceinbat icasbide ondute-coac dauqueen jatorriá ceure Biotz

jaungoicozcoctic! Eguizu, Jauna, ondo arturic ta gorderic guc eurac, sortu daigüezala cristinau birtutescoen frutuac. Eta, zuac, Querubin Santuac, artu naguizue ceuen batzarrean, nic bere izan daidan Jesusen Biotz guztiz Dontsutic urtetan daben arguitasunetan satiia.

*Arimaco arnasac.* Neure Salvaguillearen etc. Neure Jaungoicoaren Ama gozoa etc. (19 garren orrijan).

*Erregua.* ¡O jaquituriia azquembacoz heterico Biotza, ceinbat eta ce lazter icasten dabeen zu maisutzat euquitea jadetsi dabeenac. Iracatsi eguidazu, Biotz guztiz maitegarriia, ceure icaslatzat artu nozun ezquero, eta eguizu neure biotza izan daiten ceure jaungoicozco icasbideetara esanecoa eta ecarri eguizuz ceugana eguiaren contra dabiltzanac.

*Egunez gorde al dan batulasuna.*

## I C A S L I A .

---

¡Oh neure Jaubearen Biotz añ gozua!  
 Arimen eguiazco Zeruco Maisua,  
 Eracusten dozuna araco bidia,  
 Alan nai neuke izan zeurreoren semia.

Icaslatzat Jaungoico samur añ biguna,  
 Artu naizu eguiñaz abegui bat leuna,  
 Zure borondatera nai neukealaco,  
 Lotu neure biotza oraiñ seculaco.

Ene biotz au zelan eguiñ jatan oztu,  
 Querubiñ-angueruen suaz erre naizu,  
 Euren amodiua daizudan aguertu.

Esque nagotzu Jauna, euracaz batera,  
 Zabaldutiagaitic lurrian danera,  
 Zure amodiozco escola ederra.

## S E I G A R R E N B E A R G U I N T Z A N E G U I T E C O A .

---

*Sacrificaugarriia edo opagueia.*

---

Egun guztiraco etquintzaco erre-  
 gua (*15 garren orrijan*).

*Biotzeco gurariiac.* ¡Neure Jaun-  
 goicoa! Opa dot sacrificaua izatea  
 neu guztiau osoro Jesusen Biotz

guztiz Dontsuagaz batean ichi daizun peccatari errucarrien contra daucazun asarrea.

*Esquintzia.* ¡O Jesusen Biot'guztiz Santua! Esquintzen naiatzu zuri eguin naiquezun sacrificaugarri, zu Sacramentu guztiz Santuan zarean antzera eta izan daitezcan nire biotzeco gurariac zure amodiiio guztiz iciotuaren antzecoac. Amen.

**Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡O Jaungoicoaren Justicia Biotz Dontsu onec gure salvacinoagaitic quitatua, sacrificaua izanic gure amodiiioz! nic adoretan zaitut virtuteen aingueruteguiac batean.

*Mesa Santuan.* ¡O Aita beticoa! nic neure amodiiioz orain osoro sacrificueta dan Biotz jaungoicozco onegaz batean, esquiniten deustudaz neure arimia ta biotza, neure gorputza eta neure eguiguera oraingoac eta guerocoac. A! nire ta peccatari guztien erruquia izan eguizu.

*Ilaren barijecu guztietan.* ¡O Jesusen Biotz guztiz erruquitsua (21 garren orrijan.)

*Arimaco arnasac.* Neure Salva-guillearen etc. Neure Jaungoicoaren Ama gozoa etc. (19 garren orrijan).

*Erregua.* ¡O Biotz chit umilla, amodiioz beti sacrificaugarri gure altaretan esquintzen dana! ¿Cer da zuc opa ta escatuten dozuna? Beste lagun bat zugaz sacrificadua izan dedin? Ona emen ni Jauna, ceure borondatearen mendean, izan naiten esquingarriia ceure amodiioren garretan errea, ceure Aita Beticoaren gloriia andiagoraco, eta peccariien salvacinoraco. ¡O Aita cerucoa! Bada auqueratu gura izan nozu sacrificaugarritzat, artu eguizu nire sacrificiioa ceure Seme Bacarren Biotz ni gaitic sacrificaduez batean.

*Equin egun guztielan neque edo mingarrizco equitaldi arimaco edo gorputzecoren bat.*

## OPAGUEIA.

---

¡Zeñ Opagnoi dontsua esquiñi zifcan!  
 Guizon ilcorrac gaitie curutze gañean,  
 Zeure odol añ eder andiscie botiac,  
 Zabal jarri euscuzan cernco atiac.

¿Nor ainbeste mesedei jaco gaur jarquiten?  
 ¿Nor ez da gaur asiño gachac osatuten?  
 ¿Noc ez dauz gaur cantauco zure mesediac  
 Gure on arren eguiñ dituzun guztiac?

¡Oh Bildots otsan maite! graciagaz arren  
 Asi zaitex gueisuoc osasunez jarten,  
 Zuretzat opaguei duiñ gu izan gaitecon.

Birtute-ainguernen artean baturie,  
 Escatzen deusut Jauna, zuc pecatarie.  
 Ez dagnizula ichi parcatu bagarie.

## ZAZPIGARREN BEARGUINTZAN EGUITECOA.

---

### Menpeua.

---

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
 gua *(15 garren orrija)*.

*Biotzeco gurariac.* ¡O Jesusen  
 Biotz guztiz gozoa! ¡Ceinbat onrra  
 dodan, ceure amodiio samur ta



emonguillearen cateacaz estu lotuta egotean zeugaz, nire ontasun sacramentaduagaz!

*Ordua joten dabenean esatecoa.*  
Bedeincatua, alabadua ta cumplidua izan bedi beti gauza guztietan Jaungoicoaren borondate guztiz artez, goratu, ta maitegarriia.

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡O neure Jesucristo Jauna! Artu eguizu ceure servitzari onec eguiten deuntsun bere izate guztiaren esquintzia, jaristeco ceure erruquitasun azquenbacoagandic, zu zarriago ta guertaera obeagaz bisitau izan zaitezcan sacramentu adoragarri onetan, eta sortu daizuzan biotz guztietan gracia eta osasunaren frutuac, ceñen iturburu agortuecina zarean.

¡O Aingeru Santuac! Eguizuez olesac ceruco bildotzaren maira jaten joateco auqueratuai eta janci eguizuez esteguco soñecoacaz.

*Iru Aila gurea.*

*Arimaco arnasac.* Neure Salva-  
guillearen etc. Neure Jaungoicoaren  
Ama gozoa etc. (19 garren orrijan).

*Erregua.* ¡O amodio guztiz altsu  
zugandic urrin euqui nabeen cateac  
urratu dozuzana! ¡O! Neure atzian  
eruan al baneiz bide erratuetatic  
iguezca dabiltzanac ni nozbaiten  
ibilli nintzan leguez eta proba aso  
nic orain probauten dodan leguez,  
ceure otseintasun gozoaren atse-  
guingarriac eta ceinetan direan ain-  
beste zorioneco cein cateatuac! ¡O  
Jesusen Sacramentu amodiozcoa-  
ren catigutasun misteriozcoa! ¡O  
arimen iman arriia! ¡O Jesus chit  
gozoa! Ni esquintzen naiatzu ceu  
onrretaco ta ceuri gloriia emoteco,  
eta dendatuteco ecartera neure ale-  
guin ta opaquizunez biotz guztiac  
ceugana.

*Jaungoicoaren arimaco aguerme-  
nac bele.*

## MENPECUA.

---

Maitegui nozulaco ¡o Biotz Santua!  
Zacustaz preso leguez orche gucratua,  
Sacramentu orretan ¡o ce emocaiac!  
Gu aberastuteco dituzun jarriac.

Euracaz apainduta gu janziagaitie,  
Egunero zachacuz jatsiten cerutic,  
Elzendnalaco nai, gu condenetia,  
Eta bai seculaco cerura altzetia.

Menpecotzat gaur Jauna artu naizu arren  
Arcangel-aingueruen cornaz escatzen,  
Deutsut, bici nadilla beti zu serbitzen.

¡Oh Biotz maitegarri ondasun gozua!  
Nireak zngaitie gaur artu dau gogua,  
Bein bere ez serbitzeco gueyago Mundua!

## ZORTZIGARREN BEARGUINIZAN EGUITECOA.

---

### Erregutzallca.

---

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
gua (*15 garren orrijan*).

*Biotzeco gurariiac.* ¡O Aita Jaun-  
goico Beticoa! Fede biciz sendatu-  
ric eta ceure Seme Jesusen Biotz

guztiz Dontsuaren mereciquisunetan icharotez beteric, esquintzen deutsudaz eurac, jaristeco ceure graciien betetasuna, alan neuretzat cein da arima edo gorputzeco arrizcuren baten aurquituten dirianentzat.

¡O Jaungoico erruquiiorra! Jesusen Biotz guztiz Dontsuagaitic, esarri eguizu ceure graciia eriotzaco unean dagozanac gana, eta atera eguizuz purgatoriioco arima bedeincatuac euren pena icaragarriietatic.

*Sarri egun barruan esatecoa.* ¡O Aita Beticoa! Ceure Seme Jesusen Biotz chit Dontsuagaitic, ceinetan bacarric dozuzan ceure atseguin garriac indazu graciia au (*gura dana*).

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

¡O Ainguernen balzar maitegarria eta berariz zu neure Aingueru jago-  
lia! lagun eguidazue gueure Jaun Sacramentadua ganaco visita one-

tan, eta Jesusen Biotz guztiz Dontsuagaz batean esquinu eguiozuez neure egun onetaco erregu, eguiguera ta irago bearrac, bere gloria andiagoraco eta purgatorioco arima bedeincatuen ascaldiraco.

*Aita gurea.*

*Arimaco arnasac.* Neure Salvaquillearen etc. Neure Jaungoicoaren Ama gozoa etc. (*19 garren orrijan*).

*Erregua.* Aitu eguizuz, o Biotz guztiz erruquiorra preminatuen deiac eta izan zaquie atzecabetuai pozgarri, bada zure atseguinic andiena izan da beti guizonai parcatutea ta ondo eguitea.

*Egunero equin lagun progimuari umiltasun edo caridadeco eguiqueraren bat.*

## ERREGUTZALLEA.

Arima onen poza, baita atseguina,  
Biotz añ erruquior danentzat onguina,  
Aita hignac leguez emonic escua,  
Eregui daruazu jausi guisaisua.

Luzbelen andinaya birrindu cenduan,  
Ceure beso senduaz curutze santuan,

Zauri artean anche, egon arren Jauna,  
Goitupena zu zara cantau cendnana.

Erreguz nago zuri ganbaz eta egunaz,  
Erruquitu zaitean arren bada gugaz,  
Izan garealaco beti dongak zugaz.

Aingueruac daiela cantu gozoz Jauna,  
Eurenacaz batera nire diadarra,  
Ceru goyotan gora eregui Zugana.

REDERATSIGARREN BEARGUINZAN EGUITECOA.

### Celataria.

Egun guztiraco esquintzaco erre-  
gua (15 garren orrijan).

*Biotzeco gurariac.* ¡O Jesusen  
Biotz guztiz Dontsua! Zeuc ceure  
glorria jaso eguizu, ceure lagunta-  
sunagaz cristinau birtutez danoc  
apainduac eguiñagaz, baña berariz-  
co moduz gu ceure seme maitetuac.  
Eta zuec, ó ceruco Principaduetaco  
aingueruac, eldu zaitece beste ain-  
gueru batzarracaz batean Jaungoi-  
coaren Anditasunaren aurrera, eta  
ceuen bitartecotasun altsuaz jadet-  
si eguizue lurraren lau aldeetan Je-

susen Biotz guztiz Dontsua ezagutua izan daitela eta berac bere maitetasunera ecarri daiezala ainbat fedebaco ta idololari ezagututen ez dabeenac eta ainbat cristinan charzor jacan adoraciñoa ucatuten deutesenac.

*Sarri egunean esatecoa.* ¡O Biotz adoragarria! ¡Ce gurari biciz opadodan itzali ceure asarrea eta quitatu al dan ondoen, neure anaiiac euren Bearguintzetan ardurarie ezaz eguin izan leiqueezan utsaldiiac!

### **Sacramentu guztiz Santu Altaracoari visitea.**

Adoretan zaitut, neure Jesus, Sacramentu guztiz Santuan, eta adoretan dot ceure Biotz neure amorean iciotua. Gura neunque orainche sartuco baciñat neure ariman eta erreco baninduzu ceure amodiozco suan. *Bederatsi Gloria Patri.*

*Arimaco arnasac.* Neure Salvaguillearen etc. Neure Jaungoicoaren Ama gozoa etc. (19 garren orrijan.)

*Erregua.* ¡O Jesusen Biotz guz-

tiz Dontsua, ain maitegarriia ceugan eta maitetzallea gugaz! ¿Noz izango da eguna, guztiiac zu biotzetie maitetua icusico zaitudazana? ¡Noc iragarri leiqueezan ceure amorearen mirariiac, eta aleguiñac eguin biotz guztiiac emon daizuen zor deutsuen ordea!

*Galerazo ondo bequiraluta eta al dan guztiiian Jaungoicoaganaco iraiñac.*

Esquintzaco ta quitaluteco eguitaldiiac (21 garren orrijan).

## ZELATARIA.

---

¡Oh neure Maitiaren, Biotz aberatsa!  
Guizona salbetia ceibat jatzun costal  
Zure caridadia añ da arrigarri,  
Curutze mingarrian deuscuzuna guri.

Ze dontsu nintequean zure arduretan,  
Deseguingo banintza une guztietan,  
Eta zure gloriac contetan bacarrie,  
Bici nazan artean ni bicico banintz.

Ondra eta gloriac duif zarean Jauna,  
Zure arduran beti biciten nazala,  
Zelatari bat eguin naguizu leyala.

Principe-angueruac gaur lagun arturic,  
Maite ta ezaunago gura cinduquet nie,  
Munduan eguin Jauna guelditu bagarie.



JESUSEN BIOTZ DONTSUAREN ONRRAN  
COROECHOA.

---

*Deus, in adjutorium, etc.*

I. Neure Jesus guztiz maitetsua! Gogoratuten dodanean ceure Biotz ederraren gañean eta icusten daroadanean guztia erruquiz ta gozotasunez betea pecatarientzal, neurea zabaldu ta poztuten jat eta zuc ondo artuco nozun icharote beteaz uste dot ganez eguiten deustala. ¡Aiene! Ceinbat pecatu eguin dodaz! Baña orain, Pedro ta Magdalenia-  
ren antzian, minduten nago neure ariman, eta neure pecatu guztien damu dot, ez bestegaitic ezpada Jaungoico ontasun asquenbacoa eura-  
caz iraindu dodalaco. Bai neure Jauna; emon eguidazu Zeuc parca-  
men oso bat, eta ceure Biotza gaitic, erregututen dentsut ill nadilla ni milla bider, zu gueiago ofendidu

baño lenago eta bici nadilla bacar-  
ric zu maitetuteco.

*Errezauco da bein Aita guria et  
bost bider Gloria Patri Jesusen bost  
zauri ta Biotzaren onrran.*

Neure Salvaguilla maitearen Biotza  
Eguizu ceure amorean icitu ta be-  
ti aurreratu naitela.

II. Jesus neurea bedeincatuten  
dot nic ceure Biotz guztiz umilla  
eta esquerrac emoten deutsudaz  
bera niri icasgarri iminiiaz bizcor-  
tuten nozulaco ez bacarric berari  
jarraitutera, baita bere ainbat umi-  
llatuagaz eracutsi ta laundu deus-  
tazulaco orretaraco bidea. ¡Ce cent-  
zun ta esquer bacoa izan nazan, eta  
ceinbat erratu dodan neure erruz!  
Parcatu eguidazu, neure Jesus, ba-  
da gorroto dot neure biotzaren ar-  
roqueriia ta andiustea, eta gura  
deutsut jarraitu umilduric ta umi-  
llaturic, jaristeco neure arimiaren  
baquea ta salvaciñoa. Emon egui-  
dazuz orretaraco bear dodazan in-  
darrac, eta bedeincatuco dot beti  
ceure Biotza.

Aita gure *bat et bost* Gloria Patri.  
Neure Salvaguilla, etc.

III. Jesus neurea, mirariturie dautz ceure Biotz guztiz iragocorra, eta esquer biotzecoac emoten deusudaz ceure iragopen azquen bacoacaz ichi deuscuzuzan ainbeste onorabide ta ain mirarizcoacgaitie. Damu dot biotzetie ain bat bider onerabide orreec alperrie arpeguiian emon deusten neure misqueriia ta nequearen bildurra. Sartu egvizu neure Jesus, nire biotzian saletasun iraucor eta iraquin bat atsecabe, naibague, curutze ta penitenciara-co, orain jarraituaz zuri Calvariora, eldu naiten ceure laguntasunian belico glorijaco atseguinetara. Amen.

Aita gure *bat et bost* Gloria Patri.  
Neure Salvaguilla, etc.

IV. Jesus neurea, icaratuten nau neure biotzac, ceuria gogoratuten dodan bacoedian, cegaitie ece jazo aldaiquidan naibaguerie chiquienac iminten nau bertatie erostaca ta arterie artu ecinda neure caután. ¡A!

parcatu eguidazuz neure ganezac,  
 ceintzuc neure burucoitasunen chin-  
 partac direan eta azpiratuta nau-  
 queen eta indazu gracia ibilli nadin  
 ceure otsantasun sendoaren oñat-  
 zetatic, eta imini daidan neure biot-  
 za, neure baque, ain bear dodan  
 eta quendu gura deusten naibague  
 guztien ganeti. Amen.

Aita gure *bat et bost* Gloria Patri.  
 Neure Salvaguilla etc.

V. Ordu onean, neure Jesus,  
 cantau daioezala gloria ta alabant-  
 zaco cantagueillac ceure Biotz guz-  
 tiz andi, eriotziaren ta inpernuaren  
 garailariari, guztiiac bada zor jacaz.  
 Lotsaturic ta conorbagaric gueldi-  
 tuten naz icusiric neurea, edocein  
 berbachuc bildurtuten dabena mun-  
 duco esamesic chiquienac atzera-  
 tuten dabena: baña icharoten dot  
 ez dala aurrerantzian izango alan,  
 cergaitic escatuten deutsadan ceure  
 ontasun amodiiozcoari, emon dai-  
 dala bear dodan indarra gogor eguin  
 ta bencidu ezquero munduan, go-

zau daidan zugaz betico ceruan garaitziaren orri berdea.

Aita gure *bat et bost* Gloria Patri.  
Neure Salvaguilla etc.

*Biurtu arimaco beguiiac Mariiagana eta beretzat izaleco esquiniaz, esan eguiozu bere Biotz maitetsuagan icharopen andiaz:*

¡O Jaungoicoaren Ama ereguiia ta neure Ama Maria! Ceure Biotz guztiz gozoaren birtute goratuac gaitic jadetsi eidazu ceure Seme Jesusen Biotz guztiz Dontsua ganaco devociño eguiiazcoa ta iraungo dabene bat, egon esquero ni beragan sarturic neure pentsamentu eta gurariacaz, bete daidazan ciur neure bicimoduco eguin bearrac eta serbidu daiqueodan neure biotzeco pozez, eta berariz egun onetan.

*V Cor Jesu, flagrans amore nostri.*

*R Inflammá cor nostrum amore tui*

## O R E M U S .

*Illo nos igne, quæsumus, Domine, Spiritus Sanctus inflamment, quem Dominus noster Jesus Christus é penetrabilibus Cordis sui misit in terram, et voluit vehementer accendi. Qui tecum vivit et regnat in unitate ejusdem Spiritus Sancti Deus etc.*

Gure Aita Santa Pio VII.<sup>ac</sup> Epailaren 20.<sup>n</sup> 1815 garren urtean bere *Urbis et Orbis* derichon erabaguiiaz, autortu eban irureun eguneco parcamena, esan dan coroechoa errezetan dabenen cristinau guztientzat. Baita autortu eban parcamosoa illian beingo, egunero erreceztan dabeenentzat; cein irabaci leiqueen eurac auqueratuten dabenedocean egunetan, confesau, comulgau, ta erregutuas Jaunari Aita Santuaren intencinora. Parcamenonec iratsi leiquioez Purgatorioco arima bedeincatuai.

## SANTUTASUNAREN ONDASUNTEGUIA.

Manduari su emoteco etorri naz.  
 ¿Eta zer gura dot leiotu dauion espada?  
 (Luc. 12, 49).

Gure Jesucristo Jaunaren Biotz Donsua ganaco devocinoa, eguiiaz esan leique dala santutasunaren ondasunteguia, baña da ondasuntegui escutaua, eta billatuten dabenac billatuco dau bicitzia eta jarizco dau Jauna gandic ascoren osasuna.

Zorioneco Margarita Alacoqueren bicitzan, nor izan dan dempora onetan Jaungoicoac auqueratu daben bitartecoa ondasuntegui aberats au aguertuteco, iracurten dira Jaunac bere serbitzari oneri esanico berba oneec.

1.<sup>a</sup> «Neire Biotzac zabalduco dituz ugari bere onrra ta debocinora ardura andiz emoten direanen ganean, bere amodijoaren aberaztasunac.

2.<sup>a</sup> »Nire Biotza adorauten daben guztiiac eta aleguiñac eguiten

»dituezan beste batzuc bere bardin  
 »adorau daien, euquico dabe euren  
 »escuetan, mirarizco bitarteco bat,  
 »biotzie gogorrenai eraguin azo-  
 »teco.»

Esquintza onec poztu bear ditu  
 asco sacerdoteac eta beste asco sa-  
 cerdoteac izan ezarren arimen osa-  
 suna biotzetie opa dabeenac, aim-  
 bat obeto ceinda zorionez icusirie  
 dagoan eguiqueraz bere frutua.

¡O ce frutu ugariac eta gozoac  
 batuco leuqueezan Jaunaren maz-  
 tuilian, sacerdote eta arima sale guz-  
 tiiac ezagutu baleguie ondasunte-  
 gui escutu au.

**Biotz santuari norbera agundu  
 edo emoteco erregua.**

Neure Jesus chito gozoa, amodi-  
 ioaren iturriia, erruquitasunezco Ai-  
 ta, eta Jaungoico consolaguillia, zei-  
 ñec aguertu gura izan deuscuzuzan  
 pecatari errucarri ta esquerga onei  
 ceure Biotz santuaren ondasun ezin  
 esan daiquezanac; nic



esquer onaren ezaugarri nire ta guizon guztiiari eguin deuscuuzan onera ta mesediac gaitic, baterez Altaraco Sacramentu guztiz Santua ichi ceunsculaco eta amorio azquenbaco escutape onetan niganic ta besteac-ganic artu izan dozuzan iraiñen arin garri ta ordeiz, esquini ta emoten naz nazan guztiiari ceure Biotz jaungoicozcoari, ceure graciiaz orain artean eguin dodazan eguiguera onacaz eta aurrerantzean eguin neiqueezanacaz, berbia emoten deusudala aleguin guztiiac eguiteco bere debociño eta onria zabaldutearren.

Auqueratuten dot neure Ama lantantzat Virgîna guztiz garbi Mariia eta bere Biotz guztiz garbiiari here esquini ta emoten naiiaco, bardin emoten dodala berbia zabalduteco nigan dagoan bestean Ama bigun oneganaco debociño ta oneria baterez bere sortzera orban bagacoa ganaco.

Alan bada auzpazturic escatuten

deutsul ceure ontasun ta erruquillasun azquenbacoagaitic, ontzat artu izan daizula nire ezquintza au, eta emon deustazun ezquero gracia bera gura izateco ta eguiteco, indazu bardin ugari, bete daidan. Amen.

Illaren egunian

18 garren urtean.

*(Emen iminten dira icena ta osticena).*

Probau eguizue eta icusico dozue ce biguna dan Jauna. (*Psalm. 33*).

¡O ce gauza ederra ta atseguin-garria dan Biotz onetan norberen toquiia imintea! ¡Noc maite izango eztau Biotz ain maitetzallia? ¡Noc maite izango eztau ainbeste maite gaituzana. (*S. Bern., serm. 3 Pass.*)

### **Norberen emocai onen azaldutea**

Emocai edo ezquintza au beteta-co, asco da, bitartean atzeracuntzaric ezpada, urte barruan Jesusen

Biotz Dontsuaren onrran barrutico eguiquisunen batzuc eguitea, eta devociño au zabalduteco berbearen ganean, naicua izango da, sacerdoteac prediquetea edo confesinoan penitenciaz Biotz onen onran erre-guac aguindutea, eta Sacerdote ez-tireanac, bere alabantzan berba eguitea, bere irudiac ta liburuac zabaldutea. Onelan gueratuco da beteta ugari bai ugari ezquintza au. Maria guztiz Santiaren onran eguiten dan esquintzariia aitu leique bardin, eta alan bata cein bestea barriztau leiquez norberen devoci-noz Mariaren Sortzera edo Conce-cino Garbiaren eguncan eta ill ba-coheco lenengo barijecuan.

Baña arimaco bildurtasun ta illun-tasunac quenduteco, ondo izango da itundutea aita arimaco edo confesoreaz celan, noz ta cetara eguinta beteco direan.

JESUSEN BIOTZ GUZTIZ SANTUAGANACO

BETI DIRAUAN EGUIQUISUN SANTUA.

---

Gomuta oneco Aita Santu Leon XII.<sup>o</sup> autortu eban parcamen oso bat, Jesusen Biotz guztiz Santuaren Batzar Erromaco lenenagaz arcaltuta dagoanen baten sartuta direan cristinau fededun guztiari, eguquisun santu ta beti irauteco au eguiten daben bacoheraco, escubidea emonaz iratsi daiquien parcamen au Purgatorioco arimai.

1.<sup>o</sup> Confesan ta comulgauagaz Biotz guztiz Santu onen onrraraco euren burubac esquintzen direan egunean.

2.<sup>o</sup> Visitauagaz eleissa edo ermitaren bat bertan erregututen dabela Aita Santuaren intenciñora, here ta beste eleis guizonen on ta zoriontasuna gaitic, Eleissa santu mundu guzticoaren indar ta zabaltasuna gaitic, pecatarilen biurreria gaitic,

hereguiia guztien ondaquisunagaitic, erregue cristinauen arteco baquea gaitic, eguiquisun santu au eguiten dabeen guztia gaitic eta arima Purgatoriocoac gaitic.

3.º Barrieztuagaz Bautismo Santuan emonico herbac edo eguinico esquintzac eta beste edocein Jesu Cristori eguinicoac.

4.º Ordu bete jarraituan edo aldizca oraciño mentala edo biotze-coa ceruco gauzen gomutan, edo erreguren batzuc eguiten irauteagaz.

5.º Eta eguiquisun santu au izan dedin alaco su altaran beti dirauna (*Lev. 6, 13*), eguingo dira egun barruan Jesusen Biotz guztiz Santuagana-co arimaco arnasa amodiozcoac.

Esan dan parcamen osoa irabaz-teco bearra da, icentauric egotea Batzar edo Anaiteguico liburuan; eta errezago ta frutu ugariagoagaz devocino beti dirauan au eguiteco dago liburuchu moldeaturico bat.

## JESUSEN BIOTZ DONTSUAGANACO

## JAGOLATASUN EDO GUARDIA ONRAZCUA.

GORDETZALLAC DIRA: *Virgiña guztiz Santia, Andra Mariia Biotz Santucoaren icenecoa, San José, San Francisco Asiscoa, San Francisco Salescoa, eta Zorioneco Maria Margarita Alacoque.*

Neure Biotzac irainac ta samintasunac baissen icharoten ez dituz. Alperrie opa izan dot norbait nire nequeacaz erruquitu daquidan, ez dot inor aurquitu. (Ps. 63).

## JAGOLATASUN ONRRAZCOAREN SAILLA.

Biotz santuaganaco Jagolatasun onrracoa iminiia izan da gure Salvaguillaren quezca oneri erantzute-co. Eta beragan parte artuten da-beenac, aleguinac eguiten dituez poztu ta consolautearren euren debociño eta amodiioaz, Jesusen Biotz samindua guizon ainbeste maite gu-

ra ditusanen eta ceinzuc gaiti ain-  
beste irago daben eta ain guichi be-  
ra maite dabenen gomutaric ezac  
ta esquer charrac.

Jagola onrrazco oneec, seme mai-  
te itzal ta lotsa andico bere aita sa-  
murraren inguruan dendatuten di-  
rianac leguez poztu ta quitatuten  
beren anaiia esquer charreco eta  
sembacoac irago crazoten deutsez-  
nac, bardin bata bestearen atsean  
jarten dirá Jesus Salvaguilliari lagun  
eguiten, esquiniten deutsezala be-  
re Biotz guztiz gozoari itzallasuna,  
amodijoa ta pozgarriia.

#### JAGOLATASUN ONRRAZCOAREN EGUINBIDEA

Onetaraco batuten direanac, ordu  
bat ondoen derichena auqueraturic,  
ordu jagolatasuneco onen asieran  
doaz biotzez euren amodiuozco le-  
cura au da sagrariiora ecertan bere  
eztabeela onegaitic euren egunero-  
co cereguinic ichiten. Eta anche ba-  
legoz leguez esquiniten deutsez Je-

suseri, euren pensamentuac, berbac, eguiquerac, nequeac eta guztien ganeti bere Biotz adoragarriia atseguinduten dauqueezan gurari amodiozcoac. Lagun bacochoa jagocan orduan dendatuten da sarriago pentsetara Gure Jaunagan, eguiten dabe guchienez amodiozco eguitaldi bat eta al badau cerbaiten ucatuten da bere buruari. Baña ezta aguinduten ecerbere; bacarric escatuten jaco borondate ona, eta jarraitu daiiola bacochoac, bere devociño eta biotzac esaten deutsanari, onan ordu on au santutu daiian.

*Jaquingarria.* Devociño au eguiteco batzanduric dagozanai aztucobalichatequeoe euren jagola ordua, erregututen jaque, artu daiiela gomutetan direanian.

(Jesusen Biotzac isurico ditu gracia eta bendeciño ugariac, esquintazco ta amodiozco eguiquisun santu au eguiten deutsen arima leiial ta erruquitsuen gañera.)



JAGOLA ORDUAN EGUITECO ESQUINTZIA.

Neure Jesus Jauna ta Salvaguilla guztiz gozoa, nic esquiniten deutsut goardiia orduau, ceñetan (*emen esaten dira auqueratu direan gordetzalla santuen icenac*) batean gura zaitut guztiz, maitetu, glorificadu, eta batez bere atseguindu neure amodioaz ceure Biotz adoragarriia. Artu eguizuz gogo onegaz nire pensamentuac, herbac ta eguiquerac, baita neure atzecabeac bere: artu eguizu lenengo neure biotzaau, bada dan guztiia ecer gorde baga emoten deutsut, escatuaz urtu daizula ceuganaco amodiiu biciaren suaz. Amen.

Jesusen Biotz Dontsua izan daite-la guztiac maitetua. (*Eun eguneco parcamenac*).

*Jesusen Biotz dontzua, emon eguiguzu seni partez gueroago ta gueiia-go zu mailletutia.*

*Bici bedi Jesusen Biotz guztiz gozo, maitetsu ta maitegarriia.*

*¡Jesus gozoa! ¡Amodiio gozoa!* (Santa Catalina Senacoac).

*¡Edo maite izan edo ill!* (San Francisco Salescoac).

*Oh neure Jesus nic gura cindue-  
daz atseguindu ta maitetu, samindu-  
ten zaituezan ta maite ezaituezan,  
Biotz guztien ordez!*

Ama Virgíña Jesusen Biotz Dontsucoa,  
Gorde eguizu Jagolatasun onrrazcoa.

**AMABI ORDUEN GORDETZAILLAC EDO PECUDUNAC.**

---

12	taric	1ra	—Virgíña guztiz santiagaz.
1	»	2	—San José ta Santuacaz.
2	»	3	—Lurreco cristiña onacaz.
3	»	4	—Serafinacaz.
4	»	5	—Querubinacaz.
5	»	6	—Tronuacaz.
6	»	7	—Dominacino edo Aguintarita- sunacaz.
7	»	8	—Virtutiñacaz.
8	»	9	—Principaduacaz.
9	»	10	—Altasunacaz.
10	»	11	—Angueru nausiñacaz.
11	»	12	—Angueruacaz.

JESUSEN BIOTZ SAGRADUARI.

---

**Kantaac.**

---

*Oh Biotz Santu  
Maitatia  
Zu gure Errege  
Jaun aundia.*

1

Goazen guztiok  
Ain da Munduan  
Zelan Zeruan  
Agurgarri  
Goazen guk bere  
Adorau daigun  
Alabau daigun  
Biotz ori,

2

Zu zara Jesus  
Maite maitea  
Neure Jaube ta  
Jaungoikoa  
Orain natortzu  
Naibageturik  
ta beraturic  
Zuregana.

3

Saturik zagoz  
Beti gizonen  
Naiz gaiztoenen  
Amorean  
Zergaitik Jauna  
Sugar biziak  
Dozuz ichirik  
Biotzean.

4

Zabaldu egizuz  
Sugar andiok  
Lurreko loyok  
Kiskaltzeko  
Begira Jauna  
Gaiztoen lana  
Ai geyena da  
Charrerako.

5

Zure amoreak  
Dituz eruan  
Beti Munduan  
Oztasunak  
Aztu ogizuz  
Emonikoak  
Ainbestikoak  
Gure Españak.

6

Zatorkuz ona  
Zeure tronua  
Bai Zerukua  
Ipintera  
Zara errege  
Nausi ta Jaube  
Bizi zu bage  
Gu ez gara.

7

Biotz gozoa  
Zara Santuen  
Ta Aingeruen  
Atsegina

Noz ete deusut  
Nik ezarriko  
Beti betiko  
Bai begia.

8

Adiskide bat  
Doian antzera  
Zu laztantzera  
Natorkizu  
Sartu nagizu  
Zuk Biotzean  
Beti an bertan  
Enki naizu.

9

Nire egarría  
Or kendu leike  
Nok ori daike  
Zuk ezpada  
Bai neure Jesus  
Nire naia da  
Bizi ta illtea  
Zugaz bada.

## BIGARREN KANTALDIA.

1

Jesus onaren Biotz maitea  
Gauza bat arren indazu

5

Zugandik inoz ez aldentzeko  
Zuregan artu nagizu.

## 2

Iñok ezin lei geyago esan  
Ez dakiela bidean  
Soldauak Jauna zerren idigi  
Eutsun latzeaz atea.

## 3

Kanpoko lora guztiak baño  
Ederragoa izanik  
Zergaitik neure lora ederra  
Zagoz arantzaz beterik.

## 4

Alde guztitik artzen zaitue  
Kurutzeak eta narrak  
Orressek dira lur donga onek  
Eskiñi deutsuzan lorak.

## 5

Zeure Biotza idigi eta  
Sartu nai nozu zeruan  
Zeru orretan bizi naitean  
Orduan eta puntuan.

67

6



Sakramentuan katigu daukat  
Ene Erredentorea  
Amodioaz: Ez da besterik  
An preso daukan katea.

7

Santuen gozo santuen sari  
Santuen ona guztia  
Biotz orretan gorderik dago  
Santu guztien gloria.

8

Amodioak amodioa  
Ordea badau munduan  
Amodioa zor deusut Jauna  
Nik zure Sakramentuan.

9

Pena bat beti enkiko dot, len  
Zu ez nik ezagutuaz  
Atzera-penak aztuko ditut  
Aurrera or billatuaz.

Gaur arteraño ibilli banaz  
Kurutzearen inesi  
Kurutz orretan josirik nai dot  
Beti beti zugaz bizi.

Beti biotza nik euki badot  
Bestientzat idigirik  
Zu artu zaitut eta gura  
Besteai euki ichirik.

---





A.  
40